



GOBERNU BATZARRA

2021.03.16

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

**Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria**

Ez bertaratua:

Xabier Balerdi Tolosa

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko martxoaren hamaseian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Akta hau onartzea: 2021eko martxoaren 9ko ohiko bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosaldea Garatzen SAri Plaza Zaharreko 10eko hiri-finka zuzeneko kontzesioan lagatzea.
3. Onartzea Tolosako udalerrian etxez etxeke laguntzaren zerbitzu-kontratuaren luzapena.
4. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2021/ 401 Dekretua: 2020/76 faktura zerrenda.
 - 2021/ 428 Dekretua: 2021/2 eta 2021/3 faktura zerrendak.
 - 2021/ 429 Dekretua: 2021/4 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO MARTXOAREN 9KO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko martxoaren 9an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA BALDINTZA PLEGUA TOLOSALDEA GARATZEN SA-RI PLAZA ZAHARREKO 10EKO HIRI-FINKA ZUZENEKO KONTZESIOAN LAGATZEKO, ETA INFORMAZIO PUBLIKOAN JARTZEA.

AURREKARIAK:

2020ko abenduaren 18an, Tolosaldea Garatzen SA sozietateak, 10952 sarrera zenbakiarekin, eskaera egin du eskualdeko turismo bulegoa toki berri batean (Plaza Zaharreko 10ean) kokatzeko. Horretarako, dokumentu hauek atxiki ditu:

- Justifikaziorako memoria
- eraikinaren planoak
- Gauzatuko duten obraren proiektua, memoria, aurrekontua eta argazkiak.

Kontzesio horren beharra justifikatzeko argudioak honako hauek izan dira:

Gaur egun, TOLOSALDEA GARATZEN SA sozietateak bi turista harreraguneren datuak kudeatzen ditu, Abaltzisketako Larritz auzoan dagoen Txindokiko Itzala deritzon informazio puntukoak, eta Tolosako Andre Maria plazan kokaturiko gunekoak. Tolosako turismo bulegoa da, urte osoan zabalik egonik, turista gehien artatzen dituen gunea, zehazki, 2019an, 8.392 bisitari artatu zituen, eta 7.663 bisitari, berriz, Txindokiko Itzaleko informazio puntuak. Bestalde, turisten profilari dagokionez, Tolosako bisitarien % 76,45 Euskadiko beste probintzietatik, Estatutik edota atzerriko beste herrialde batetik datoz, eta Txindokiko Itzalean soilik bisitarien % 21,92k erantzuten dio profil horri. Hori dela eta, eskualdearentzat interesgarriena da Tolosan kokatzea eskualde mailako informazioa emango duen turismo bulegoa. Gaur egun Andre Maria plazan kokatzen den turismo bulegoak ez ditu irisgarritasun irizpideak behar bezala betetzen (Irisgarritasunari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritza - Adapta, 2009). Bestalde, turisten balorazioaren arabera, jasotako tratua eta informazioaren aldean puntuazio baxua dute kokapenak, instalazioek eta seinaleztapenak (Turismo bulegoko 2019-2020ko gogobetetze inkestak).

Beharra justifikatu ondoren, eskari hau egiteko ahalmena eta justifikazioa azaltzen ditu:

- *Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu planak edo politikak.*
- *Hiri ekonomia horren sustapenean, turismoaren sektore sustatzea lehentasunatzat jotzen du Tolosako Udalak hiri Ekonomiaren plan estrategikoan, udalerriko enpleguan eta garapen ekonomikoan funtsezko eginkizuna baitu.*
- *Turismoa bere baitan jarduera sektore izateaz gain, Tolosako ekonomiaren osagarri garrantzitsua ere bada, zehazki, kultura, azoka, ostalaritza eta merkataritza sektoreena.*

TOLOSALDEA GARATZEN SA, sozietatearen Estatutuen 1. artikuluan adierazten da sozietate publiko anonimo gisa eratzen dela eta bere sozioak Tolosaldea eskualdeko



udalak direla. Estatutuen hirugarrenko artikuluan xedatzen den moduan, sozietatearen objektu soziala honako hau da: "Tolosaldeko udalen biziberritze eta ekonomigapenerako lagun lezaketen jarduera guztiak burutzea, enpresen eta enpleguaren sustapena barne, eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkar-lana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere, Estatutuek diotenaren arabera eta indarrean dagoen legeriak udalerriei horretarako aitortzen dien eskumenen esparruan". Tolosaldea Garatzenen helburua eskualdean kalitatezko enplegua sustatzea da, eta, horretarako, besteak beste, turismoa erakartzea eta sektore horretako eragileen jarduera ekonomikoa handitzen eta hobetzen laguntzea. Gainera, ikerketen arabera, turismoak eskualdean garatzeko gero eta indar eta ahalmen handiagoa du (Tolosaldea Saretzen, 2018).

Beraz, aurrekari guztiak kontutan izanik, eskatu du Tolosaldea Garatzen SA sozietateari Plaza Zaharreko 10. zenbakian kokatuta dagoen eraikina emakida bidez esleitzea 8 urterako.

2020ko abenduaren 23an, Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren sustapenerako teknikariak egindako txostenean, Tolosaldea Garatzen SAK egindako eskaria ontzat eman du eta bertan arrazoitutako argudioak berretsi ditu.

OINARRI JURIDIKOAK:

Lehena. Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzerakoan, erabilera pribatibotzat hartuko da jabari publikoko zati bat okupatzea, baina gainerako interesdunen erabilera mugatzen duela edo kanpo uzten duela.

Kontzesio edo emakida administratiboaren bidez egingo da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa.

Kasu honetan, Tolosaldea Garatzenen esku utzi nahi den hiri-finkak (Plaza Zaharreko 10ekoa) deskripzio hau du udal inbentarioan:

*"Finca: bajo izquierda mirando a la fachada de la casa señalada con el número 10 de la Plaza de Idiaquez, hoy Plaza Zaharra, de esta villa de Tolosa. Tiene una superficie de doscientos ochenta y dos metros cuadrados aproximadamente. Linda:norte, portal de entrada y caja de escalera;sur y este, los generales del edificio y oeste con lindero oeste, patio de la casa nº 17 de la calle Antonio Elósegui, hoy Correo. A efectos de participación en los elementos comunes y demás legales , se valora este departamento en 37,09%.
Naturaleza: urbana.De servicios públicos.*



Título que se atribuye al municipio: nº 638, escritura de compraventa de 16.6.2004, formalizada ante el Notario Don Pedro Elósegui Bergareche. Finca 9483.

Registro: Tolosa, Tomo 1365, libro 190, folio 163, finca 9483, inscripción 4 .

Beraz, Tolosaldea Garatzen SA sozietateari Plaza Zaharreko 10eko hiri-finka lagatzeko era kontzesioa da.

Bigarrena. Aplika daitekeen legeria:

— 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

— 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

Hirugarrena. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, **Lege honetatik kanpo gelditzen dira** ondasun higiezinak, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira.

Ondare-legeria hori ondare-legeria estatala da, zehazki esanda, 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 110.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondare-ondasun eta ondare-eskubideen gaineko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak, beren prestaketa eta esleipenari dagokionez, lege honek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta arau horietan aurreikusten ez dena Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko legeriak arautuko du. Haien eraginak eta azkentzeak lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte.



Era berean, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, 98.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzesioak emango dira aurrez lizitazioa eginda eta Administrazio Publikoetako kontratuen legearekin bat etorrira.

Hari beretik, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 93.1 artikuluan dio (oinarrizkoa, Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera) jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagokaraubidean egin behar direla.

Laugarrena. Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka araubidean egin behar dira. **Halere, zuzenean eman ahal izango dira 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 137.4 artikuluan jasotako supostu edo kasuetan, ohiz kanpoko inguruabarrak badira tartean, behar bezala justifikatuta, edo legetan ezarritako beste kasu batzuetan.**

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen zuzena egin ahal izango da kasu hauetan:

a— Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoa badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen.

b— Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.

c— Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat gauzatzeko, baina aurreko bi paragrafoetan aurreikusita ez dagoen pertsona batek egina.

d— Besterentzeko sustatutako lehiaketa edo enkantea huts deklaratzeko denean, edo haiek huts egiten badute esleipendunak bere betebeharrak bete ez dituelako, beti ere urtebete igaro ez bada haiek egin zirenetik. Kasu honetan, besterentzeko baldintzak ezin dira izan aurrez iragarritakoak baino kaskarragoak edo esleipena eman zeneko baldintzak baino kaskarragoak.

e— Orubean ezin eraiki denean, formagatik edo tamaina txikiagatik, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.



f— Ekonomikoki ustiatzeko adinako azalerarik ez duen landa-finka denean, edo bertan bere izaerarekin bat datorren erabilera bat gauzatu ezin denean, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

g— Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberena edo gehiagorena denean eta salmenta jabeak baten edo gehiagoren alde egiten denean.

h— Salmenta egiten denean lege-xedapenez aitortutako lehentasunezko eroste-eskubidea duenaren alde.

i— Ezohiko arrazoiak tarteko komenigarritzat jotzen denean salmenta higiezina okupatzen ari denaren alde egitea.

Kasu honetan, zuzeneko emakida puntu honetan dago justifikatuta: Administrazio Publikoaren ondarea xedatzen duen 33/2003 Legea, 137.4.a) artikuluan, hain zuzen: Ondoko kasuetan zuzeneko esleipena ahal izango da:

“Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoa badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen”.

-Bestalde, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu planak edo politikak.

Bosgarrena. Emakidak ezin dira epe-mugarik gabe eman, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzkoak, 93.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan zortzi urterako izango da.

Seigarrena. Erabilera pribatuko emakidak edo jabetze publikoaren aprobetxamendu berezikoak doan izan daitezke; kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke; tasa bat ordaindu beharra izan dezakete erabilera pribatiboagatik edo jabetza publiko estataleko ondasunen aprobetxamendu bereziagatik —zeina arautzen duen 25/1998 Legeak, uztailaren 13koak, Estatuaren eta Toki Erakundearen Tasen Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzen dituenak, I. Tituluko VIII. Kapituluan—; edo araudi berezietan ezarritako tasak ordaindu beharra izan dezakete.

Erabilera pribatiboak edo jabetza publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak ez du tasarik ordaindu behar, baldin eta esleipendunarentzat onura ekonomikorik ez badakar; edo, onurarik badakar ere, erabilerak edo aprobetxamenduak dituen baldintzek edo kontraprestazioek onura hori baliogabetzen edo hutsal uzten badute.



Onar daitezkeen baldintza orokorrek edo partikularrek jaso ditzaketen gainerako kontuen kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabakiak jaso beharko ditu, gutxienez, Lege horren 92. artikuluko 7. apartatua baimenentzako ezarrita dauden aipamenak, salbu eta kalte-ordainen eskubiderik ez duen alde bakarreko ezeztapenari dagokiona.

Zazpigarrena. Komenigarritzat jo daitezkeen beste alderdi batzuk gehitzeko aukeraren kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabiltzen diren klausulek alderdi hauei erreferentzia egin beharko diete:

- a) Emakidaren helburua eta mugak.
- b) Obrak eta instalazioak, interesdunak egin beharrekoak, hala dagokionean.
- c) Erabilera-epea, luzaezina, araudi berezian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
- d) Esleipendunaren betebeharrak eta eskumenak Korporazioarekin duen harremanean, eta Korporazioak hartzen dituenak.
- e) Baldin eta erabileraren bidez publikoari zerbitzu pribaturik eman behar bazaio, hartarako ezarri diren tarifak, hala badagokio behintzat, eta tarifa horiek adierazi behar dira haiek osatzen dituzten faktoreak xehatuta dituztela, ondorengo berrikuspenen oinarri gisa.
- f) Baldin eta dirulaguntzarik ematen bada, zer dirulaguntza mota den, zenbatekoa, epeak eta interesdunari emateko modua.
- g) Udalari ordaindu behar zaion kanona.
- h) Erabilitako jabetza-zatia egoera onean edukitzeko betebeharra, eta, hala dagokionean, zer obra egin dituen.
- i) Obrak eta instalazioak itzuli behar diren edo ez epea bukatutakoan.
- j) Korporazioak eskumena duela esleipena ondoriorik gabe uzteko epea bukatu baino lehen, baldin eta hura justifikatzen badute gertatu diren interes publikoko inguruabarrek, eta jarri beharko da sortutako kalteak ordaintzeko beharrik badagoen edo ez.
- k) Kontzesioa ematen dela jabetza eskubiderik gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe.
- l) Zer zigor ezartzen diren interesdunak, bere betebeharrak direla-eta, egindako arau-hauste arin, larri edo oso larriengatik.
- m) Emakidadunaren betebeharra erabilitako ondasunak uzteko eta libre uzteko, udal entitatearen esku, ezarritako epean, eta aitortzea udal entitateak ahalmena duela, berez, botatzea edo kaleratzea ebazteko eta exekutatzeko.

Zortzigarrena. Prozedura honi jarraitu beharko zaio:

A. Aurrena ondorengo guztia justifikatu behar da: **Udalaren beharra edo komenientzia** ondasunaren emakida egiteko; bere helburua edo helburuak; eta zer esleipen-prozedura jarraituko den. Ondoren, udal zerbitzu teknikoek txostena egingo



dute, zeina oinarri izango den jabetza publikoko ondasunaren erabilera pribatuaren emakida administratiboa egiteko, barne izango duelarik merkatuan gutxi gorabehera duen prezioaren **balorazioa**.

2021eko urtarrilaren 28an, Hirigintza Saileko buruak 147.952,04 eurotan baloratu du hiri-finka hori.

B. Emakida ebazteko eskumena duen organoak hasiera emango dio espedienteari eta aginduko du idatz dezatela esleipena arautuko duen **administrazio-baldintza partikularren plegua**.

C. Emakidaren oinarri izan behar duen proiektuak eta lizitazio-oinarriak jendaurrean jarri behar dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, 30 egunez gutxienez, eta epe horretan erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezke.

Era berean, interesdunen eskura egongo da iragarki-taulan eta Udalaren egoitza elektronikoan.

D. Jendaurreko tramiteak zer eman duen ikusita, kontratazio-organok ebazpen arrazoitua emango du, espedientea onartuko du eta esleipen-prozedura irekiko du.

E. Esleipena zuzenean egingo da; hortaz, erabilera pribatiboaren administrazio-emakida eskainiko zaio hartan interesa duen pertsonari edo enpresari.

Gonbidapenean honako hau jarri behar da: **eskaintza jasotzeko muga-eguna**; zer helbidetara bidali behar den; zer hizkuntzatan idatzi behar den; zer agiri osagarri erantsi behar zaizkion, hala badagokio behintzat; eta zer lekutan, egunetan eta ordutan irekiko den proposamena.

F. Kontratazio-organok, hala dagokionean, hartarako izendatzen den batzorde negoziatzailearen bidez (kontratazio-organoren menpeko teknikoek osatua) **eskaintza** baloratu eta **negoziatuko du**, eta behar izanez gero, **lizitatzailari eskatuko dio** aurkez dezala, batetik, administrazio-baldintza partikularren pleguan aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, bestetik, eratu dezala behin betiko bermea, hain zuzen ere, okupatutako jabetza publikoak duen balioaren % 3ko bermea. Hirigintza Saileko buruak, 2021ko urtarrilaren 28an finka horri balorazio hau eman dio: 147.952,04 euro. Beraz, jarri beharreko bermea 4.438,56 eurokoa da.

Horretarako, **hamar egun balioduneko epea izango du**, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

G. Kontratua formalizatu behar da dokumentu administratibo batean, zeinak zehatz-mehatz bat etorri behar duen lizitazio-baldintzekin, eta dokumentu hori titulu



nahikoa da edozein erregistro publikotara jotzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea, eta bere kontura izango dira horren gastuak.

Organo Eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017ko Bigarren Xedapen Gehigarriko 9. eta 10. puntuek ezarritakoarekin bat. Honela dio artikulua horrek: "Toki Entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioiko euro baino gehiago; ondarea besterentzea ere beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa".

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Beharra eta komenigarritasuna justifikatuz jotzea Plaza Zaharreko 10eko hiri-finkaren erabilera Tolosaldea Garatzen SArI zuzenean emateko.

BIGARRENA.- Baldintza-plegua onartzea Tolosako Plaza Zaharreko 10. zenbakiko hiri-finkaren emakida demaniala zuzenean esleitzeko.

HIRUGARRENA.- Proiektua eta baldintza plegua jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean; epe horretan erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Era berean, Udalaren webgunean eta gardentasun-atarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ezean, Tolosaldea Garatzen-en aldeko emakidaren zuzeneko esleipena egitea, bertan turismo bulegoa jartzeko.



3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA.

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Kontratuaren helburua	Tolosako udalerrian etxez etxe laguntzaren zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila

II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2017ko irailaren 11n Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, beste batzuen artean, aipatutako xedea duen kontratazio-espeditentea onartu eta lizitazioari hasiera eman zion. Lizitazioa legearen arabera argitaratu zen Euskadiko Kontratatzailearen Profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian.

Bigarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, CASER RESIDENCIAL, S.A.U (A81228520) eta ILARKI ASOCIACIÓN DE ASISTENCIA DOMICILIARIA (AS/G/03399/1992) enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak.

Hirugarrena.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2018ko martxoaren 21ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, beste batzuen artean, aipatutako kontratua CASER RESIDENCIAL, S.A.U (A81228520) enpresari esleitu zion honako ezaugarri nagusi hauekin:

Prezioa:

- Astelehenetik ostiralera (jaiegunak izan ezik): 20,16 €/ordu (19,39 €/ordu printzipalari dagozkio eta 0,77 €/ordu %4ko BEZari).
- Asteburu eta jaiegunetan 25,52 €/ordu (24,54 €/ordu printzipalari dagozkio eta 0,98 €/ordu % 4ko BEZari).
- Urteko gastua: 887.973,65 euro (853.820,82 € printzipalari dagozkio eta 34.152,83 € %4ko BEZari).

2018. urteari dagokionez, prezioa izango da zerbitzua emango duten hilabetei dagokiena, hau da, apiriletik abendura bitarteko parte proportzionala kalkulatu da.

Epea: 2 urteko epea kontratua formalizatzen zen egunetik kontatzen hasita. Hala ere beste bi urtez, urtez urte, luzatzeko aukera aurreikusi zen.

Laugarrena.- Horiek horrela, zegokion kontratua formalizatu zen 2018ko apirilaren 20an eta legearen arabera argitaratu zen Euskadiko Kontratatzailearen Profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian. Horren arabera, 2020ko apirilaren 19an bukatzen zen kontratua. Horiek horrela 2020ko maiatzaren 19an (alarma egoeragatik izapidetzea eta epeak eten egin ziren) Tokiko Gobernu Batzarrak kontratuaren luzapena onartu zuen beste urtebetez eta 2020ko



ekainaren 1ean formalizatu zen kontratuaren luzapena urtebetez. Horrela, 2021eko apirilaren 17an bukatzen da kontratua.

Bosgarrena.- Kontratuaren amaiera-data aintzat hartuta, sarrera izan zuen udal erregistroan 2021eko otsailaren 16an, 2021/1903 erregistro zenbakiarekin, Asunción Veloso Borrego andreak, CASER RESIDENCIAL, S.A.U (A81228520) enpresaren izenean eta ordezkapenez, egindako eskaerak, non urtebeterako kontratuaren luzapena eskatzen zuen.

Seigarrena.- Horiek horrela, 2021eko martxoaren 5ean Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak kontratuaren urtebeterako luzapenaren aldeko txostena igorri zuen.

III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Araubide juridikoa: Luzapenari dagokionez, bai Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 3. klausulak, bai bi aldeek sinaturiko kontratuaren 3. klausulak, kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango zela jasotzen dute. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea, beste bi urtez, urtez urte, luzatu ahal izango dela xedatzen du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 303. artikulua xedaturikoari jarraikiz.

Halaber, administrazio kontratu mota guztietako luzapenei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluen 2. atalak honako hau xedatzen du:

«2. Kontratuak behin edo gehiagotan luzatu ahal izango dira; betiere, luzapenak luzapen, kontratuaren bereizgarriak iraunaldi osoan ez aldatzekotan eta, kontratua esleitzeko lehiaketan, kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartu bada, luzapen eta guzti. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzen badu, enpresaburuak ezinbestean onartu beharko du luzapena, non eta kontratuak ez duen berariaz kontrakoa aurreikusten. Ezin da luzapenik izan bi aldeen isilbidezko adostasunaren bidez».

Kasu honetan, proposatzen den luzapenak ohiko izaera du.

Prezioen berrikuspena: Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 4. klausulan azaltzen den bezala, luzapen honetan **prezioak ez dira berraztertuko**.

Organo eskuduna.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena kontratazio organoari dagokio.

Kasu honetan, kontratazio-organoa Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011



Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera:

«Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere».

Hori kontuan izanik, eskumena alkate-lehendakariaren izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatezaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

Aurreko guztia aintzat harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzaitza Sailek egindako txostenak ikusirik eta udal teknikariek egindako proposamena aztertu ondoren, zeinak udal kontuhartzaitzearen oniritzia duen, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako udalerrian etxez etxeko laguntzaren zerbitzu-kontratuaren luzapena onartzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat etorrira. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezkoak diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

BIGARRENA.- Kontratuaren luzapena, gehienez, 2021eko apirilaren 19tik 2022ko apirilaren 18ra bitartekoa izatea.



HIRUGARRENA.- Kontratuaren luzapenean ez da preziorik berrikusiko; beraz, arestian aipatutako preziok mantentzea:

- Astelehenetik ostiralera (jaiegunak izan ezik): 20,16 €/orduko (19,39 €/orduko printzipalari dagozkio eta 0,77 €/orduko % 4ko BEZari).
- Asteburu eta jaiegunetan 25,52 €/orduko (24,54 €/orduko printzipalari dagozkio eta 0,98 €/orduko % 4ko BEZari).

LAUGARRENA.- Aipatutako zerbitzua 0500.227.04.231.10 aurrekontuko partidaren kargura finantzatzea, eta horretarako, aipatu bezala, dagokion kredituaz hornitzea.

BOSGARRENA.- CASER RESIDENCIAL SAU (A81228520) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerara bertaratu dadin.

SEIGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratatuzailearen Profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri Ogasun eta Administrazio Finantza Sailari ematea.

ZORTZIGARRENA.- Luzapen honen oinarritzko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2021/ 401 DEKRETUA: 2020/76 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/401 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

77. zenbakia duena, 70.008,52 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

77. zenbakia duena, 70.008,52 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/ 428 DEKRETUA: 2021/2 ETA 2021/3 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/428 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

2. zenbakia duena, 186.437,09 eurokoa.

3. zenbakia duena, 325 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauekako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

2. zenbakia duena, 186.437,09 eurokoa.

3. zenbakia duena, 325 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/ 429 DEKRETUA: 2021/4 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/429 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatua, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu lege eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda haue:

4. zenbakia duena, 3.064,22 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

4. zenbakia duena, 3.064,22 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:50ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0006-2021-03-16 Gobernu batzarreko akta/2021-03-16 Gobernu